




Afiliazioak 5.000 enplegu baino gehiago gehitu ditu

Gizarte Segurantzako afiliazioa

Urte bakoitzeko martxoa. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Martxoan, Euskadin Gizarte Segurantzako afiliazioa 5.003 pertsonatan igo zen, 1.033.410 kotizatzailetara iritsiz. Bolumen horrek %1,1eko hazkundera suposatzen du urte arteko tasan, eta serie historiko osoan martxo baterako jasotako datu onena da. Sexuen arabera, gizonen afiliazioa %1,1 hazi zen urte batetik bestera, emakumezkoena baino zertxobait gehiago (%1,0).

Langabezia erregistratua berriro jaitsi zen martxoan

Langabezia erregistratua

Urte bakoitzeko martxoa. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Martxoan, Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabeziak urte arteko %1,05 egin zuen behera, 1.141 langabe gutxiagorekin. Otsailarekin alderatuta, urtarokotasuna dela eta, langabeziak gora egin zuen zertxobait (179 langabe gehiago). Dena dela, langabeen gutzizko kopurua 107.173 pertsonakoa izan zen, 2008tik serie historikoko mailarik txikiena martxo baterako.



Lan kontratuen kopurua %5,2 hazi zen

EAEn erregistratutako kontratuak
Urte bakoitzeko martxoa. Milakoak




Iturria: SEPE.

Martxoan, kontratazioak portaera bereziki dinamikoa erakutsi zuen, 60.481 kontratu erregistratu baitziren, otsailean baino %14,2 gehiago eta urtebete lehenago baino %5,2 gehiago. Kontratazio mugagabeak gero eta pisu handiagoa hartu zuen, eta jadanik guztizkoaren %25,4a da. Kontratatutako pertsonak 42.773 izan ziren.

IPIa %0,2 murriztu zen otsailean urte arteko tasan

Industria produkzioaren indizea
Urte bakoitzeko otsaila



Iturria: Eustat.

Eustaten datuen arabera, otsailean Euskadiko industria produkzioa aurreko urteko hil berean baino %0,2 txikiagoa izan zen. Kontsumo ondasunen (%3,4) eta bitarteko ondasunen (%1,7) jaitsiera ekipamenduko ondasunen (%2,7) eta energiaren (%1,9) gorakadak konpentsatu zuen, eta ekoizpena ia egonkor geratu zen. Urtarrilaren aldean, industriaren produkzioa %0,4 hazi zen.